

AOB

[EZ, EZ. TRISTURA]

Ez, ez. Tristura
ez zait atsegin.
Nahi dut jai egin
ikastolatik datozen
milla hurrekin.

Ez, ez. Lutoa
ez zait atsegin.
Nahi dut jai egin
haurrak azitzen dituzten
aita ta amekin.

Ez, ez. Lanturik
ez zait atsegin.
Nahi dut jai egin
humorea maite duen
Herriarekin.

Nahi dut jai egin,
ametsetan ekin,
ikastolatik datozen
milla hurrekin.

Nahi dut jai egin,
ametsetan ekin,
haurrak azitzen dituzten
aita ta amekin.

Nahi dut jai egin,
ametsetan ekin,
humorea maite duen
Herriarekin.